

TTAKUN (H)ERRENKA

Fikziotik errealitatera

Niri, Beñatek argudiatu duen bidetik urrun, baina gero eta gehiago hazten ari zaidan neurekoieriaz, nostalgia-
ren aldeko argumentuak pila-
tzen ari zaizkit, denei ezin
erantzuteko moduan: zifra
makroekonomikoak nire fami-
liaren alde zeuden garai hareki-
ko mira adibidez; edo are gehia-
go, azken aldian pentsatzen
hasita nago nire bizitzako frus-
trazioa aristokrata bokazioari uko egin behar
izana dela, ez dut ekintzaile (utziko didazue
gaztelaniaz jartzen: *emprendedor*) arimarik.
Marianismoak Espainia merkatuetan surfea-
tzen noiz jarriko zain (eta horrek lana sortu),
momentuz lankideak nola kaleratzen dituzten
begiratzen dut (oraindik ez naiz iritsi gure gai-
tza funtzionarioei kutsatzeko desio zitala iza-
tera); eta bitartean nostalgia bezain iraultzailea
den ihesbideei lotzen natzaie umorista batek
gobernatzeko duen herrialdean: futbola edo
literatura. Ez dut krisiari buruz eransteko ezer
berririk. Eta Beñat amaieraz aritu zela aprobe-
txatuko dut aste honetan amaitu den prozesu
bati buruz idazteko, Marta del Castillorena.

Beñatek esan bazuen *Gartxot* ikusi gabe
zegoela, Cronenberg, von Trier eta Polanski-
ren pelikulei lehentasuna eman zielako, utzi-
ko didazue niri ere snob xamar jartzen (irain
nazakezu Beñat) nire aristokrata arima frus-
tratuaren salatari, eta esaten Perez Galdosen
El crimen de la calle de Fuencarral irakurriz ari
nintzela erreparatu niola epaiketa
betean zegoen kasu luze honi;
gero Kordobako haurrak desa-
gertu ziren, telebistan erreleboa
hartuz bezala.

Perez Galdosen kronikak fik-
ziotzat leitzen nituen, aurkezten
duten pertsonaia sorta mozkor-
garria, narrazioaren erritmoak,
duela mende pare bateko distan-
tziak... errazten dute hori. Rafael
Reig-ek prologoan dio: “Dashiell
Hammett da, Chamberi bertsio-
an. Higinia neskame hiltzailea,

DANI BLANCO



Ixne Apaolaza



Padrón



Sarasola

kartzelatik sartu eta irten
dabilen semea, Millan
Astray, legioa sortu zuena-
ren aita...” Badirudi hilketa
bereziki korapilatsuek sor-
tzen duten kuriositate mor-
bosoa ez zela Alcasarren
hasi. (Nire arima aristokrati-
koak gogorarazten dit pro-
testa moduan fikziotzat
ikusten nituen beste krimen

batzuk *Power, privilege and justice* programakoak
zirela, Dunnek aurkeztuak).

Eta horrela iritsi nintzen Marta del Casti-
lloren kasura: Higiniaekin bezala, munstro
sorta bat sortu da, adin txikiko kide eta guzti,
nola hazten zen ikusi duguna, Barbara Goe-
naga bezala (baina maitasun gutxiagorekin);
ikusi ditugu epaiketan desfilatzen, ordaindu
egin zaie platoetan irainduak izan zitezen...
eta Nacho Abad ikusi dugu batez ere, adibi-
dez epaiketa zuzenean jarraituz SMS bidez.

Eta errealitatera jaitsi naute kolpetik lintxa-
mendu gabe amaitu den gorroto pilaketa
honen amaieran (Rene Girard-en *Chivo expia-
torio* aipatzera nindoan, baina Camps bere
kontrako epaiketan autorearen gaiari buruzko
liburuarekin ikusi ondoren, nire arima aristo-
kratikoak ez dit uzten, nahikoa du egiten ari
naizen gainerako aipuekin), gogora dezagun,
akusatuak jarraitzen ari ziren estrategiaren
aurrean, tortura kasik hitza esanez eskatu den
kasuan. Eta biktimaren gurasoek egitea nor-
mala iruditzen zait (hori topikoa da), baina
gainerakook pentsatu behar genuke zergatik

epaia entzun eta hasi garen justi-
zia sistemak onetik duen bakarra
erasotzen, eta jendea hiru hilabe-
tera agertu den taxista baten leku-
kotza hutsik kondenatzeko eska-
tuz, eskuak zaplastako antzuetan
airean astinduz bezala, fikziozko
emozioa errealitateak zapuzturik;
eta pentsatu behar genuke Higi-
nia bezala garrotean
ikusi nahi genuke-
nak ez hala buka-
tzeak, gu geu babes-
ten gaituela. ■



Beñatek esan bazuen *Gartxot* ikusi
gabe zegoela, Cronenberg, von Trier
eta Polanskiren pelikulei lehentasuna
eman zielako, utziko didazue niri ere
snob xamar jartzen